

EDITORIALA



Irudia ~ *Italienische Landschaft* [paisaia italiarra], August Lucas, (1850 inguruan).
Iturria ~ Wikimedia Commons

Berriki Pasaiaren dekretua onartu egin da EAEn, haren bitartez Europako Paisaiaren Hitzarmenaren (EPH) irizpideekin bat egiten dela adieraziz. EPHren ezaugarri garrantzitsuena zera da, bertan egiten den paisaiaren definizioa, edozein eremuri paisaia-izaera aitortuz, baita edozein lurraldetako jendartearen iritzi eta hautemateak paisaiaren osaketan duen pisua nabarmenduz ere. EPHk, eta dekretuak, esku hartzeko irizpideak —babesa, antolamendua eta kudeaketa— eta instrumentuak —Paisaiaren Katalogoak, Zehaztapenak, Ekintza Planak eta Paisaian integratzeko azterlanak— zehazten ditu. Nola aplikatzen dira irizpide horiek paisaia mota ezberdinetan?

Batzuen ustez, dekretua galkarga administratibo eta tresnen bikoizketa bat da, eta, beste batzuentzat, lurraldea ulertzeko eta lantzeko beharrezkoa den ikuspegi zabalago eta zehatzagoa. Alemanian esaterako, EPH sinatu gabe dute ingurumenaren legedia nahikoa dela paisaia babesteko. Horrek zera planteatzera garamatza: paisaia,

babesgarria den ingurumenaren fenomeno parekidea ote da? Maiz lotu da paisaia naturarekin, baina oinarrian kulturaren arabera den kontzeptua dela onartua dago; ezagutzen al dira behar bezala euskal paisaia kulturalak? Hiri-paisaiez, paisaia industrialez, hondar eta bazterreko paisaiez ere ugari hausnartu, idatzi eta diseinatu egin da. Beste hainbat hari ere lotzen zaizkio gaiari, hautematearen ikuspegitik paisaiaren eraikuntzan eta ulerkeran subjektibotasunari, zentzumenei eta irudikapenari ematen zaie garrantziarekin.

Aldiriren 24. zenbaki honek aipatutakoak eta beste batzuk lantzen dituzten ekarpenak bildu nahi izan ditu, paisaia langai duten hainbat esperientziaren bitartez. Zenbakian mendi-paisaiaren eraikuntza, soinu-paisaia, haurrek zoruaren mailatik osatzen duten paisaia, baserri- eta landa-paisaia, paisaia ezkutu publikoa, kostako paisaia, meatzaritza-paisaia eta hiri bazterreko paisaiak azalduko dira, fenomeno honen eskala- eta aspektu-aniztasunaren adierazgarri.